Arartekoaren 2015R-240-15 Ebazpena, 2015eko maiatzaren 19koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio berriz azter dezala Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan etxebizitza babestuaren eskatzaile baten inskripzioari baja emateko erabakia.

Aurrekariak

1. Herritar bat Ararteko erakundera etorri da eta esku hartzeko eskatu digu, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja eman baitiote bere inskripzioari eta, hortaz, eten egin baitiote etxebizitzarako prestazio osagarria.

2. Kexagilea 2010. urteaz geroztik zegoen izena emanda erregistro horretan eta, adierazi digunez, iazko abenduan jakin zuen bere eskaerari baja eman ziotela zortzi hilabete lehenago, epe barruan berritu ez zuelako.

3. Interesdunaren esanean, ez zuen inolako jakinarazpenik jaso eskaera berritu behar zuela ohartarazteko, eta geroago ere ez zitzaion formalki jakinarazi Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja eman ziotela. Era berean, kexan adierazi duenez, baja horren ondorioz, 2015eko urtarrilaren 24az geroztik Lanbidek eten egin dio etxebizitzarako prestazio osagarriaren ordainketa.

4. Herritar horren kexa kontuan hartuta, laguntza-eskaera bidali genion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, eta argibideak eskatu genizkion, zehazki, zer izapide egin diren eta jakinarazpenak nola burutu diren kexagilearen eskaeraren bajarekin amaitu den prozedura horretan, izan ere, egiaztatu nahi genuen ea prozedura horretan bete ote diren Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legean ezarritako prozedura-bermeak.

5. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, gure laguntza eskaerari erantzunez, txosten bat igorri digu. Honela dio:

   "Baja Lurralde Ordezkaritzako iragarki-oholaren bidez jakinarazi zitzaion (2014ko apirilean); eta hori guztiz bat dator Etxebizitza Herri Lan era Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 24.2 artikuluan ezarritakoarekin (Agindu hori etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa da era 2012ko urriaren 31n argitaratu zen EHAAn, 2011 zenbakikoa), zeinak ezartzen baitu ebazpenak jakinaraziko direla Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren (Zuzenean) iragarki-oholetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratuta.

   Era berean, iragarki-oholean argitaratuta jakinaraztea bat dator Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102

Erkidearen 30/92 Legearen 59-6b artikuluan ezarritakoarekin.

Inskripzioa berritzeko betebeharrari dagokionez, betebehar hori Etxebizitza, Herri Lan era Garraioetako Sailburuaren Etxebizitza eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 16. Artikuluan dago jasota (EHAA, 2011 zk., 2012/10/31)

Administrazio honek ez dauka etxebizitza-eskatzaileei beren legezko betebeharrak banaka gogorarazteko betebeharri, nahiz eta kortesiazko gutunak, mezu elektronikoak edo SMSak bidaltzen direla egoera horien berri emateko, eta ebazpenak noiz argitaratuko diren aditzera emateko. Gutun horiek posta arruntaren bidez igortzen dira, eta, horregatik, ez dago gutunak benetan jaso direla egiaztatzeko modurik, eta ez dute jakinarazpen baliorik".

6. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren txostena ondorio honekin bukatzen da: espedientearen baja hori indarrean dagoen araudian xedatutako moduan jakinarazi zela.

Gogoetak

1. 2008an, aurreko urteetan Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren funtzionamenduari buruz jaso genituen herritarren kexa kopuruak gora egin zuela ikusita, gomendio orokor bat igorri genuen "Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren ebazpenen izapidetzea eta jakinarazpena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeari egokitzeko beharrizanari" buruz"[1].

2. Gomendio orokor horretan, honako ondoriora iritsi ginen, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa erregulatzeko araudiaren eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen xedapenen eta bat datorren jurisprudentziaren arteko konparaziozko azterketa egin ondoren:

   "Orain arte azaldutako arrazoibideek agerian jarri dute Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aztertu egin behar duela Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko inskripzioei baja emateko edo horiek aldatzeko erabakietan erabiltzen duen prozedura formala, eta prozedura horretan sartu behar duela interesdunari entzuteko izapidea eta erabaki horiek interesdunari berari jakinaraztea, hark jakinarazpena jaso duela egiaztatuko duen edozein bide erabiliz.

   Horretarako, hauxe eskatzen da: erregistroko oharrei buruzko ebazpenak iragarki- tauletan jakinarazteko ekintza (Etxebizitza Eskatzaileen

[1] (http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1640_1.pdf)

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102

Erregistroa arautzen duen".

2008ko apirilaren 16ko Aginduak 5.2 artikuluan ezarritakoa), edonola ere, interesdunari berari jakinaraztearen osagarri izan dadila, eta jakinarazpen personal hori espedientean beti egiaztatuta gera dadila

3. Labur, ediktu-jakinarazpenaren erabilera murriztailearen alde egiten duen jurisprudentzia ugarian oinarrituta, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroari buruzko ebazpenak iragarki tauletan argitaratzeak ezin zitzakeela interesdunei bidalitako banakako jakinarazpenak ordezkatu balioetsi genuen, eta xede horretarako ezarritako arauzko aurreikuspenak ere ezin zezakeela babestu babestutako etxebizitza eskatzaileen interesen baliozko defentsa eragozten zuen praktikarik. Hau da, herri-administrazio ororen jardunbideak gidatu behar dituzten fede onaren eta konfiantza legitimoaren printzipioen aurkakoa zela praktika hori.

4. Auzitegi Gorenak 2012an[2] igorritako geroko epaietan berretsi du gure gomendio orokorrean aipatutako jurisprudentzia doktrina. Horietan, ediktu-jakinarazpenaren erabilera mugatua egiteko egokitasuna azpimarratu da. Honako terminoetan adierazi da hori:

"*Como una constante jurisprudencia enseña la notificación edictal o por anuncios es rigurosamente excepcional, en tanto que debilita las posibilidades materiales del destinatario del acto de conocer su contenido y reaccionar frente a él. El Tribunal Constitucional se ha pronunciado en la línea de que la notificación por edictos tiene un carácter supletorio y excepcional, debiendo ser reputada como el último remedio, por lo que únicamente es compatible con el artículo 24 de la Constitución Española si existe la certeza o, al menos la convicción razonable de la imposibilidad de localizar al demandado.*"

5. 2013ko urtarrilaren 2tik aurrera, indarrean sartu zen 2012ko urriaren 15eko Agindua[3], Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroarena eta Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Autonomia Erregimeneko Zuzkidura Bizitokiak Esleitzeko Prozedurena. Agindu horrek babestutako etxebizitza eskatzaileen erregistroa erregulatzen duen aurreko araua indargabetu zuen, eta 24. artikuluan ezarri zuen honako aurreikuspena, izen emateko prozedurei, moldaketei eta erregistroko bajei buruzko jakinarazpenentzat:

1– Ebazpenak bitarteko telematikoz jakinaraziko dira Administrazio

[2] 2012ko ekainaren 28ko eta 2012ko azaroaren 22ko epaiak.
[3] 2008ko apirilaren 16ko Agindua, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa erregulatu

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102

Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan xedatutako kasuetan.

2.– Gainerako kasuetan, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren
(Zuzenean) iragarki-oholetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko

Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratuz jakinaraziko dira

3.– Babestutako Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoak (Etxebide) dagozkien ebazpenak argitaratzeko eguna jakinarazteko interesdunei helarazitako komunikazioak (postazkoak, elektronikoak, informatikoak edo telematikoak) ez dira inola ere jakinarazpentzat hartuko

6. Zoritxarrez, babestutako etxebizitza eskatzaileen erregistroaren erregulazio berriak ez du hobekuntzarik ekarri erregistroko altei, moldaketei edo bajei buruzko jakinarazpenak egiteko moduan. Bestalde, egungo Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, aurreko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ere egin ez zuen bezala, ez du Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren izen emate eta baja prozeduretan txertatu jakinarazpen pertsonala.

   Eskuarki, 2012ko urriaren 12ko Aginduak 24. artikuluaren 3. atalean ezarritakoari jarraiki, posta bidezko edo posta elektroniko bidezko jakinarazpena egiten da ebazpenak Eusko Jaurlaritzako Zuzenean-Herritarren Arretarako Zerbitzuaren iragarki taulan argitaratu aurretik. Alabaina, interesdunak jakinarazpena jasoko duela ez da ez ziurra ez egiaztagarria, eta, zenbait kasutan, orain aztertzen ari garen honetan bezalaxe, horrek galarazi egiten du etxebizitza behar duen pertsonak bere eskaera berritzeko eskeari erantzutea, baita ere, gerora, baja emateko erabakiaren kontra bere eskubideak baliaraztea eta etxebizitza babestu bat jasotzeko aukera izatea.

7. Aipatu gomendioan jaso genuen Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izen ematea funtsezkoa dela, nahitaezko betekizuna baita babestutako edo pareko etxebizitzaz gozatu ahal izateko. Bestetik, eskaeraren antzinatasuna ere alderdi erabakigarria dela adierazi genuen, babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenduna izan ahal izateko orduan. Ondorioz, Ararteko erakundeak berme formalak hertsiki bete daitezela defendatzen jarraitzen du, etxebizitza duina eta egokia izateko oinarrizko eskubidea erabiltzeko sarbidea den administrazio prozedura batean.

8. Beste alde batetik, adierazi beharra dago Etxebizitza Eskatzaileen

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102

Erregistroaren araudi berria[4] indarrean sartuta, larriagotu egin direla Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja ematetik eratorritako ondorioak; izan ere, erregistroan antzinatasuna galtzeaz gain, bajarako ebazpenak izen emateko aldi baterako debekua dakar (urtebetez edo bi urtez, kasuen arabera). Epe horietan, etxebizitza behar duen pertsonak ezin dezake parte hartu babestutako edo pareko etxebizitzen esleipenerako prozeduretan.

Egoera hori, baliabide ekonomiko urriengatik etxebizitzaren merkatu librera sartu ezin daitezkeen pertsona eta familientzat berez zaila dena, txartu egin da 2014tik aurrera. Izan ere, erregistroan izen ematea ukatzeak edo erregistroko bajak zenbait prestazio ekonomiko etetea eragin dezake, horiek jaso ahal izateko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta egotea eskatzen baitzaie laguntzak jasotzen dituzten pertsona edo familiei.

Horregatik ondorioztatu dugu Eusko Jaurlaritzari zuzendutako 2014ko urteroko txostenaren etxebizitza eremuari buruzko atalean[5] "Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko kudeaketa hobetu behar dela, eta beharrezko bitarteko material eta pertsonalak bideratu behar zaizkiola xede horri, herritarrek babestutako etxebizitzarako eta etxebizitza gaietako gizarte laguntzak gozatzeko sarbide prozeduretan behar diren berme formalak eduki ditzaten".

9. Jarduera hau eragin duen kexan, kexagileak une oro adierazi du ez zuela garaiz jakin, bere interesak babeste aldera erreakzionatu ahal izateko, bere inskripzioa berritu behar zuela, ezta ere inskripzio horri baja eman ziotela; eta egindako ikerketa-izapideetan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez duela kontrakoa egiaztatzerik izan, ezta justifikatzerik ere kexagileak beharrezko jakinarazpenak jaso zituela.

   Azken batean, sail horrek baliozkotzat jo nahi izan du etxebizitza babestuko eskatzaile horren eskubideen kalterako erabaki bat, formaltasun batzuk bete dituela (iragarki-taulan argitaratzea) argudiatuz, baina horiek betetzeak ez du bermatzen kexagileak Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan bere inskripzioari baja eman ziotela jakin zuenik.

10. Aurreko paragrafoetan adierazi dugun moduan, kasu honetan etxebizitza babestuko eskatzaileen erregistroan baja eman izanak ondorio larriak izan ditu kexagilearentzat, izan ere, etxebizitza duin eta egokia izateko duen eskubidea mugatu diote, eta, horrez gain, etxebizitzaren hileko gastuei aurre egiteko behar duen laguntza ekonomiko bat eten diote; eta bere oinarrizko beharrak asetzeko eta gizarte- eta egoitza-bazterketa ekiditeko onartu

[4] 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 19. artikulua, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroarena eta Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Autonomia Erregimeneko Zuzkidura Bizitokiak Esleitzeko Prozedurena

[5] http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3639_3.pdf)

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102

zioten, hain justu, laguntza hori.

Beste kexa-espediente bat bideratuz, Lanbideri jakinarazi diogu herritar horren kexaren alderdi hori, kexagileak etxebizitzarako prestazio osagarria eten dioten aldian jaso ez dituen diru-kopuruak berreskura ditzakeen azter dezan.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11. b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendioa luzatu da:

GOMENDIOA

- Berriz azter dezala Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan kexagilearen inskripzioari baja eman dion ebazpena, eta 2010eko martxoaren 10etik pilatutako antzinatasuna aitor diezaiola, eskatutako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren.

- Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren ebazpenen izapidetzeak eta jakinarazpenak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeari egokitu diezazkiola.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102